

«IRAKURGAIK» LIBURUAREN AURKEZPENA (Larran)

Apirilaren 19an, LARREA-ZORNOTZAko karmeldarren etxean ospakizun pozgarria izan genduan Bizkaiko euskal abade talde eder batek: azken lau-bost urteotan zehar hainbat lagunen ekinak burutu dauan «IRAKURGAIK» (Bilbo 1988. XXVII - 1.090 orr.; 302x242 mm.) liburu sendoa aurkeztu genduan.

Otoitzaldi batez emon geuntsan hasiera aurkezpen-jai eder horri. Pazkoaldiko bizkunde abesti bat kantatu eta Artzain Onaren pasarte iragarri ondoren, Jainko-Herriaren otoitza eginez sartu ginan ospakizunaren atarian.

Berehala, Karmelo Etxenagusia, elizbarrutiko Bikario Nagusia, Jose Maria Rementería, V. Lurraldeko Bikarioa, Antonio Linaza, VI. Lurraldeko Bikarioa eta neu, Lorentzo Zugazaga, jarri ginan aurreko mahai-inguruan.

1.- Lehenengo berba egiteko txanda neuri egokidan. *Jainko-Berba, Eliza ebanjelizatua eta Jainko-Berba Liturgian*: horixe izan zan nire hitzaldiaren haria.

Jainko-Berbearen arpegiera batzuk aztertu nebazan, hasteko: Jesukristo, Jainko-Berba gizakiarentzako mezu; Jainko-Berba historian hazurmamindua; Jainko-Berba, Kristoren Espirituaren dohai; Jainko-Berba, berba emona eta berba agindua.



Eliz-alkartea Jainko-Berbearen eraginpean -izan zan nire azalpenaren bigarren ataltxoan- Eliza, Berbeagandik, Kristogandik jaioten da. Eta eliza honen eginkizuna zera da: Berbea onartu, Berbeari erantzun (konbertsinora bultzatzen gaituan fedea) eta Berbea ospatzea.

Eta amaitzeko, Jainko-Berbea ta Liturgia izan neban aztergai. Jainko-Berbeak Eliza sortarazten dau; Eliza ospakizunean alkartzen da; ospakizunak egiaztatu eta gaurkotu egiten dau Jainko-Berbea. Honan, Jainko-Berbeak lortu nahi zituan helburuak bete-betean burutzerara daroa Eliza.

2.- Antonio Linazak aurkeztu eban bigarren gaia: *Erantzun-Salmoa eta Aleluia*.

IRAKURGAIK liburuak salmorik gehienak eta Aleluia gaz batera doazen gorlpen txatalak eskeintzen deuskuz.

Erantzun-salmoari buruz historia xehetasun batzuk egin ondoren, hitzaren liturgi ospakizunera egituran dogun atal honen bereiztasuna azaldu euskun. Zer dan? Jainkoaren Hitzza bera, herriari dohai lez emona, eta herriak Jaunari bere Berbaz erantzuteko erabili behar dauana.

Kantuz erabiltzekoa izan arren, ez da beste kantuen parekoa. Benetako beste irakurgai bat lez hartzen dabe liturgiarick.

Nork aldarrikatu edo abestu beharko leuken eta zenbat eratarra egin daiteken, azaldu euskun gero.

Bere txanda amaitzeko *Aleluia eta goralpen txatalei* buruz ekin eutsan. «Aleluia» abestutekoa da, eta ez esatekoa. Eta musika aldetik, aukera zabala dagoen ezkerro, aldiari aldiko giroa kontutan harturik, «aleluia» mota ezberdinak abestu beharko geunkez. Goralpen txatala ere abestekoa da; abestu ezik, hobe itzi egitea.

3.- Hirugarren txanda Karmelo Etxenagusiarena izan zan. Honan azaldu euskun bere txostena.

Beste liturgi itzulpen guztiak lez, IRAKURGAIK liburua ere euskal elizbarruti guztietako talde batek itzuki eban euskerrara, On Manuel Lekuona buru zala. Eukaristiaren barruan edozein elizkizunetan erabili behar diren irakurgai guzti-guztiak aspalditxo izan ziran argitaratuak Donostia, Iruña eta Gasteizko elizbarrutietarako, Liburu lodikote bakar baten. Bizkaitarrok orain argitaratu dogun liburua horixe berori da, gure elizbarrutirako egokitua.

Zelan egin dan? Eliza Amaren eta zentzun onaren legeak eskatzen dabenez, ahal danik eta zehatzen jarraitu jako aurretik argitaratuta egoan liburuari. Ez da, ba, itzulpen barria, lehengoa bera zerbait aldatu eta egokitzea baino, gure Bizkaiko fededunek ondo eta errez ulertu dagien. Behin baino sarriagotan ez jaku gogoko izan aurrean geunkan itzulpena, baina ez dogu aldatu, itzulpen barri bat ez egiteko. Berbak, ostera, nasai samiar aldatu doguz, eta Bizkaian legezkoak direnak sartzen eskuzaballak izan gara, honetan zorrotzegi jokatu barik.

Nortzuk egin daben? Orain arte erabili izan doguzan Irakurgaiak (Domketakoak), Aita Lino Akesolok egokitu zituan Bizkairako, eta badaukez K. Etxenagusiaren eta Pio Zarrabe pasiotarren ikutu txiki batzuk ere. Orain argitaratu dan liburu lodia bizkaieratzeko lagun askok parte hartu dau: P. Puxana, J.B. Gallastegi, J.F. Garitaonaindia, J.F. Zamakona, J.J. Lejarazu izan ziren egokitzeko lehenengo lana atalka-atalka egin ebenak, Salmoak L. Zugazagak eta K. Etxenagusiak emoten deutsoe, eta eurok egindako hutsen batzuk J.M. Rementeriaen begi zorrotzak zuzendu ditu. Liburua bera egin, osotu, irarkolara eroan, hutsak zuzendu eta beste mila arazoren ardurea J.M. Rementeriaena izan da.



4.- Amaitzeko, Jose Mari Rementeriak egin euskun berba.

Vaticano II. Kontzilioaren erabagiz barriztatua izan zan «MISSALE ROMANUM». Orain bost urte argitaratu zan «ALTA-

RAKO LIBURUA» eta oraingo «IRAKURGAIK» liburu lodi honen bidez «MISSALE» haren bizkaierazko itzulpen osoa burutua geratzen da. *Altarako liburuan*, Meza Santuko otoitzak eskeintzen ziran. *Irakurgaien* liburu honetan, Jainkoaren Berbea iragartzeko aukeratuta dagozan irakurgai guztiak emoten jakuz.

Liturgi ospakizunetan erabiltzeko gaur egun izentauta dagozan irakurgai guztiak hartu ditu liburu honek. Liburu hau ondo erabili ezkeru, beti bardinak barik aukeran eskeintzen diren irakurgaiak erabili ezkeru, Bibliako mezurik nagusienak entzun daikceez gure eliztarrek, azken Kontzilioan Meza-liburua barrizatzean eukan helburuetako bat lortuz.

Azkencan, liburua zelan eratuta dagoan eta zelan erabili azaldu euskun Jose Marik.

Goiz onuragarria ta pozgarria izan zan IRAKURGAIK liburuaren aurkezpena zala-ta Bizkaiko abade talde ugari batek bizi izan genduana!

Lorentzo Zugazaga